

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure bulego zentrala Bilbon dago eta hartatik kontrolatzen dugu inportanteena. Bertan gauden batzuk ekonomia ikasketak ditugunez diru kontuak ondo kontrolatzeko gaitasuna daukagu, eta badaezpada beti dirua aurreztuta izatea ona dela uste dugu. Lantegi propioak ditugu España osotik, baina, garraio sistema beste enpresa batek kudeatzen du. Horretarako, azpikontratazio bat egin dugu garraio enpresa batekin eta dugun kontratua oso ona izatea lortu dugu, horri esker modu efiziente batean lan egin ahal dugu gure lana errazten duelako. Gainera, plastikoa nola landu oso ondo dakiten hondakindegri batzuekin lan egiten dugu gure helburu nagusia berdina delako. Hau da, bion helburua planetari laguntzea eta ahal dugun plastiko kantitate handienak birziklatzea da, horregatik elkarlanean dihardugu eta biok onurak ateratzen ditugu. Alde batetik, guretzat hori gure hondakindegri propioak sortzea baino merkeagoa delako eta, bestalde, haintzat plastikoa birziklatzea helburu nagusia denez gure enpresari esker plastiko asko lor dezakete gure dendei esker plastiko asko batzen dugulako gure bezeroei esker (plastiko kantitate jakin bat ekarriz gero deskontuak egiten ditugulako) eta noski dirua ematen diegu.

Aipagarria den zerbait da fisikoekin lan egiten dugula birziklatze metodo berriak lortu ahal izateko eta orain ditugunetan hobekuntzak egitea, beti aurrera egin ahal dela eta hobeto egin ahal dugula uste dugulako teknologiak egunero aurrera egiten duelako. Gainera ez daude hori egiten duten enpresa askorik eta gurea handienetariko bat denez, gure lana ezin da konparatu beste enpresa baten lan batekin.